



I. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA Bizkaiko Foru Aldundia

Ekonomia Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 58/2024 FORU DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, zeinaren bidez zuzentzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 9ko 52/2024 Foru Dekretuan antzemandako akatsak. Foru Dekretu horren bidez, Trantsizio Digitala dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdiak onesten dira, 2024 urterako.

Bizkaiko Foru Aldundiak 2024ko maiatzaren 9ko Gobernu Kontseiluan 52/2024 Foru Dekretua, Trantsizio Digitala dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia 2024 urterako onesten dituena, onartzea erabaki zuen.

Bi akats hauteman dira 9. oinarriko lehenengo atalaren gaztelaniazko bertsioan eta 20. oinarrian jasotako balorazio-irizpideetako baten testuan, euskarazko bertsioan; beraz, zuzentzea ezinbestekoa da. Akats materialak dira Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 26.2.a artikulua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Teknika Arautzaileari buruzko Gidalerroak onesten dituen 2017ko uztailaren 4ko Bizkaiko Foru Aldundiaren Erabakiaren 88. atalak hirugarren ustezkoan xedatutakoaren arabera.

Edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokio aztertzea bidali den testua onartzea, 3/1987 Foru Arauaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2024ko maiatzaren 30eko bileran azterturik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.—9. oinarriko lehenengo atalaren gaztelaniazko bertsioaren akatsak zuzentzea

9. oinarriko lehenengo atalaren gaztelaniazko bertsioa zuzendu da.

— *Honako hau dioen lekuan:*

- La intensidad y el importe máximo de las ayudas será superior para empresas que hayan elaborado un plan de digitalización avanzada durante los años 2023 y 2024 y cuenten con un informe de resultados análogo a lo establecido en la base 2.

— *Ondokoa esan behar du:*

- La intensidad y el importe máximo de las ayudas será superior para empresas que hayan elaborado un plan de digitalización avanzada durante los años 2022 y 2023 y cuenten con un informe de resultados análogo a lo establecido en la base 2.

2. artikulua.—20. oinarrian jasotako balorazio-irizpideetako baten testuaren, euskarazko bertsioaren akatsak zuzentzea

20. oinarriko lehenengo atalean jasotako b) irizpidearen euskarazko bertsioa zuzendu da.

— *Honako hau dioen lekuan:*

- Proiektuaren eragina eta trantsizio digital eta berdearen sustapena (25 puntu, gehienez).

— *Ondokoa esan behar du:*

- Proiektuaren eragina eta trantsizio digitalaren sustapena (25 puntu, gehienez).



AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra. — Indarreen jartzea

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarreen.

Bilbon, 2024ko maiatzaren 30ean.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA